

Barojaren omenezko hitzorduak Donostian

Idazlea zendu zela 50 urte beteko dira hil amaieran eta ' Baroja Abenturazale ' zikloa egingo dute bere jaioterrian

Ekain Rojo. Donostia

Pio Baroja idazlea zendu zela 50 urte beteko dira urriaren 30ean. Urteurrena aintzat hartuta, Baroja abenturazale zikloa antolatu dute Donostian, idazlearen jaioterrian. Urriaren 24tik 31ra bitartean egingo dituzte ekitaldiak, 19:30ean, Liburutegi Nagusiko sotoan (San Jeronimo kalean), eta Lugaritz Kultur Etxean. Halaber, Urriaren 31n, Barojaren Donostia hitzorduaren barruan, Gaztaroa, egolatria: haurtzaroko kontakizunak Donostia liburua (Alberdania argitaletxea) aurkeztuko dute Udalaren Osoko Bilkuretako aretoan. Iñazio Mujikak hautatu ditu Barojaren testuak eta Koro Navarrok euskaratu ditu.

Donostiako Udaleko Kultur Zinegotzi Ramon Etxezarretaren hitzetan, gaur egun Barojazale ugari dagoen arren, bere lanak jende gutxik irakurtzen ditu. Gainera, idazlearen emaria helduei ez ezik, gazteei ere hurbiltzea da zikloaren helburua eta horregatik bildu dute abenturaren inguruan Barojaren ekarpena. Bere inguruko historiaz zuen jakinduriak eta idazteko zuen maisutasunak narrazioa eta abentura ere sortzeko gaitasuna eman zioten. Horrez gain, Baroja idazle eztabaidatua izan zela berretsi zuen Etxezarretak: Guztiak kritikatu ohi zituen, baina bere literaturaren erakargarritasunaren parte ere bada aldarte hori.

ABENTURAREN BIDEK. Ana Maria Moix olerkariak eta Kike Diaz de Rada aktoreak abian jarriko dute urriaren 24an Barojaren omenezko egitaraua Baroja irakurtzeko abentura deiturapean. Urriaren 25ean, Barojaren bizitzeko abentura, bizitzaren aldeko borroka hitzaldia eskainiko dute Fernando Mariasek eta Arantxa Urretabizkaiak. Horrez gain, urriaren 26an Barojaren obrako pertsonaia abenturazaleak solasaldia izango da, Alvaro Bermejo, Santiago Aizarna eta Eduardo Yañezek eskainita. Urriaren 29an, Joserra Fachadok eta Zurriolako Antzerki Eskolak hartuko dute lekukoa. Paradox, Rey obraren irakurketa dramatizatua emango dute 20:00etan. Aurreko hiru ekitaldiak ez bezala, Antigua auzoko Lugaritz Kultur Etxean izango da entzungai.